



Lezoko Unibertsitateko Udala

VI.- ERANSKINA.

Hizkuntz Irizpideak (V. plangintzaldia (2013-2017)).



Lezoko Unibertsitateko Udala

.- AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

A.- SARRERA

B.- ZERBITZU ETA LAN HIZKUNTZA: LEZOKO UDALEAN BIAK EUSKARAZ

C.- V. PLANGINTZALDIRAKO HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

1. Hizkuntza gaitasuna
2. Ahozko komunikazioa
 - 2.1. Erakundearen ahozko kanpoko harremanak.
 - 2.2. Erakundearen ahozko barne-harremanak.
3. Idatzizko komunikazioa
 - 3.1. Erakundearen idatzizko kanpo-harremanak.
 - 3.2. Erakundearen idatzizko barne-harremanak.
4. Itzulpenak
5. Langileen prestakuntza orokorra
6. Tresna eta aplikazio informatikoak
7. Internet eta Intranet sareak
8. Argitalpenak
9. Hizkuntza paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)
10. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
11. Diru-laguntzak
12. Kontratazio administratiboak

ERANSKINA: Idatzizko nahiz ahozko kanporako komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak



Lezoko Unibertsitateko Udala

A)- SARRERA

Euskararen Erabilera Arauzkotezko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zenetik, herri administrazioetan hainbat urrats eman da euskararen normalizazioa sustatu eta lortzearen. Horrela, uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea garatuz, herri administrazioek, besteak beste, bertako langileek euren lan eginkizunak euskaraz betetzeko hizkuntza ezagutza maila egokia lor zezaten neurriak hartu zituzten, 1990-1995 plangintza-aldian.

86/97 Dekretuak aurreko plangintzaldian egindako ibilbideari jarraitu eta ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko oinarriak ezarri zituen. Bigarren plangintzaldi hartan egin beharreko nagusia erakunde bakoitzak bere hizkuntza egoeratik abiatuz *euskararen erabilera normalizatzeko planak* zehaztea eta abian jartzea izango da.

21/1998 Erabakiak agintzen du argitara dadila Jaurlaritzaren Kontseiluko Akordioa Euskararen Erabilera Normalizatzeko. Hor jaso bezala, Administrazioa bere zerbitzupeko langileen euskalduntzean egindako ahaleginari etekina atera beharrean dago, arian-arian euskaraz gehiago sortuko duten atalen bidez. Helburu horri eutsi behar dio, besteak beste, ehunka langilek lortutako hizkuntza-gaitasuna gal ez dadin.

Lezoko Udalak 1995ko maiatzaren 17an egindako Osoko Bilkuran onartu zuen 1995-1999 aldirako Euskararen Erabilera Plana Lezoko Udalean. Bertan, trebakuntza lehenetsi bazen ere, erabilerarako lehen urratsak ematen hasi ziren.

2002ko martxoaren 22ko Osoko Bilkuran onartu zen haren jarraipena, langileek eta Administrazioak prestakuntzan egindako ahaleginari etekina atera nahian eta arian-arian euskaraz gehiago sortzeko helburuarekin.

Ondorengo plangintzaldiak, IV.a hain zuzen ere (2008-2012), ordura arte lortutakoak sendotzea zuen helburu. Orduan ere, erabilera izan zen erronka nagusia eta euskara lanean hizkuntz normalizatua izan zedila izan zuen helburu nagusi.

IV. Plangintzaldia 2012ko abenduaren 31ean amaitu zen eta harrez gero, 2013an Plangintzaldia urtebetez luzatzea erabaki zuen Udalak, besteak beste Eusko Jaurlaritzak berak oraindik prestatu gabeak zituelako Plangintzaldi arteko aldaketarako egin beharreko lanak. Orain, 2013tik 2017ra beste bosturteko plangintzaldia abiaraziko dugu, Eusko Jaurlaritza bera eta EAEko udal gehienekin batera.

Lezoko Udalak V. Plangintzaldian garatuko duen Erabilera Plana 2013ko abenduaren 31ean **onartu zuen. Eskuarlean duzuen liburuxka honetan, aipatu planean jasotzen diren hizkuntza irizpideak aurkitu ahal izango dituzue, eguneroko lanean, bakoitzak norbere lanpostuan aplikatu eta gauzatu beharrekoak.**



Lezoko Unibertsitateko Udala

B)- ZERBITZU ETA LAN HIZKUNTZA: LEZOKO UDALEAN BIAK EUSKARAZ

Esparruez eta helburu orokorrez gain, V. Plangintzaldia. EAeko Herri Administrazio eta Erakundetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak txostenak erabilera planek jaso behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu. Hona hemen kontuan izan beharreko puntuetako bat:

“4.- Euskara lan hizkuntza gisa erabilia izango den funtzioen zehaztapena, lanpostuz lanpostu¹.

Ondoren zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren arteko bereizketa egitea tokatzen da. Hona hemen bien arteko desberdintasunak apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1. artikulua 2. puntuan jasotzen denaren arabera:

“Euskal Autonomi Elkartean dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri aginteez, nork bere esparruan, euskara zerbitzu-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte.

Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan administratuekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean, harremanotan erabiltzen den hizkuntza, horixe da zerbitzu-hizkuntza, Dekretu honi dagokionez.

Era berean, lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan bertan erabiltzen den hizkuntza, horixe izango da lan-hizkuntza”,

Zerbitzu hizkuntzari dagokionean, Lezoko Udalean, legeriak hizkuntza ofizialez diotenari kalterik gabe, euskarak herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du, udal organo politiko, administrazioako atal eta lanpostu guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman mota guztietan ziurtatu beharko da lehentasunez eta nagusiki euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoan eta bai tresna elektronikoko, informatiko zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet, fax, posta elektronikoko eta abarretan).

Lan-hizkuntzari dagokionez, Lan hizkuntza, lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan ahoz zein idatziz bertan erabiltzen den hizkuntza dela esan dugu.

Lezoko Udalean baditugu idatzizko hizkuntzarik erabiltzen ez duten edo gutxitan erabiltzen duten lanpostuak, hala ere ahozkoa erabiltzen dute eta normalean herritarrekin harreman handia izaten duten lanpostuak izaten dira. Hori dela eta, egoki ikusi dugu idatzizkoaz gain, ahozkoan ere erabili beharreko irizpideak finkatzea.

¹.- Eusko Jaurlaritzak, Hekuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; V. Plangintzaldia. EAeko Herri Administrazio eta Erakundetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak, Gasteiz, 2013 (15. orria).



Lezoko Unibertsitateko Udala

Beraz, Erabilera Plan honetako bigarren puntuan Lezoko Udaleko langileen hizkuntza gaitasun mailak ikusita, ez dago arrazoirik Lezoko Udal Osoaren lan hizkuntza euskara ez izateko.

Ondorioz bada, Lezoko Udaleko sail guztietan zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izango da. Hori horrela hurrengo kapituluan, langile guztientzat euskarak zerbitzu eta lan hizkuntza izan behar badu, langileek jarraitu beharreko hizkuntza irizpideak jasotzen dira.

Jarraian berriz, sailka antolatuta lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza langile bakoitzaren kasuan. Esan dugun bezala sail guztien zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izango da, baina gaitasunik ez duten langileen kasuan zer ezarri zaien jasotzen da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

C)- V. PLANGINTZALDIRAKO HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

Atal honetan aurretik zehaztu ditugun helburuak lortze aldera langileak edota udal erakundearentzat lanean ari den edozein pertsonak jarraitu beharreko hizkuntz irizpideak zehatzen dira. Horretarako, berriro ere, helburuak definitzeko erabili ditugun ardatzak hartzen dira oinarritzat.

EBPNren barnean hamabi esparru zehatzen dira udal barneko erabilera planak diseinatzeko garaian horiek modu sistematizatu eta bateratuan egin daitezzen. Udal batek bere funtzionamenduan sortzen duen errealitatea modu zehatzen jasotzen dute esparru horiek.

Hori horrela gogora ditzagun interbentzio esparruen zerrenda:

- 01.- Hizkuntza gaitasuna
- 02.- Ahozko komunikazioa
- 03.- Idatzizko komunikazioa
- 04.- Itzulpenak
- 05.- Langileen prestakuntza orokorra
- 06.- Tresna eta aplikazio informatikoak
- 07.- Internet eta Intranet sareak
- 08.- Argitalpenak
- 09.- Hizkuntza paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)
- 10.- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
- 11.- Diru-laguntzak
- 12.- Kontratazio administratiboak

Udal funtzionamendua esparru horietan banatuta ongi islatzen dela esaten badugu, ez dago lekuz kanpo esparru horiek oinarri hartuta, hizkuntza irizpideak zehaztea kasu bakoitzean.

Ondokoak dira beraz, Lezoko Udalak hizkuntza ofizialak erabiltzeko garaian, bai barne nahiz kanpo jardueretan, kasu bakoitzean erabiliko diren HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:



Lezoko Unibertsitateko Udala

1. Hizkuntza gaitasuna

Lezoko Udaleko edozein langilek, hizkuntza eskakizuna lortua izan edo ez, bere ezagutzan sakondu nahi badu erraztasunak eskainiko zaizkio:

- Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko deialditan parte hartzeko.
- Euskara Saisetik eskaini dakieken laguntza jasotzeko.

2. Ahozko komunikazioa

2.1. Erakundearen ahozko kanpoko harremanak.

a) Euskara hutsean: ekintza motak, bere ingurugiroak edo entzulegoak eskatzen duenean edo zor zaienean.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan. Euskara gutxienez ere gaztelania adina erabiliko da.

b) Harrera: Lehen hitza eta agur-hitzak. Ahozko harreman-mota guztietan (hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean), Udalaren izenean hizketan ari denak euskaraz egingo du lehenengo hitza, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan emango dizkio argibideak. Beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aukera, hari inolako ezerosotasunik eragin gabe. Hala egingo da herritarrari zerbitzua ematen zaionean.

c) Lezoko Udalaren eta beste euskal administrazioen aarteko harremana euskara hutsean izango da posible den guztietan

d) Erakunde publiko zein pribaturen batekin hitz egin behar denean eta telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatuko da.

e) Udalak antolatutako jendaurreko ekitaldi publikoetan (prentsurrekoak, aurkezpenak, herri-telebistako agerraldiak, jardunaldiak, erakusketak, sari-banaketak, hitzaldiak, mahai-inguruak, elkarrizketak, jaietako pregoia), Udalaren izenean aritzen dena –langile nahiz kargu politikoa– edota Udalak izendatzen duena, euskaraz arituko da, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Udalak jarraipena egingo du irizpide hau betetzen dela bermatzeko.

f) Udalak antolatutako ikastaroak euskaraz izango dira, ahal den guztietan. Salbuespenak, kasuan kasuan aztertuko dira.

g) Herritarrekin batera egiten diren bilerak, iraunkorrak (Aholku Batzordeak), zehatzak eta auzoetakoak, euskaraz egingo dira, posible den guztietan.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Bileran euskara ulertzeko gai ez diren herritarrak daudenean, bilera euskaraz egingo da eta gaztelerazko laburpenak egingo dira, beti ere aurkezpen-agurrak, azalpen nagusiak eta amaierako laburpena euskaraz direla.

- Gai zehatz baten inguruko bilera bat baino gehiago antolatzen duenean Udalak bilera batzuk euskaraz eta beste batzuk gazteleraz egingo dira.

Udalak jarraipena egingo du irizpide hau betetzen dela bermatzeko.

2.2. Erakundearen ahozko barne-harremanak.

a) Udalbatzaren Osoko Bilkura euskaraz egingo da.

b) Tokiko Gobernu Batzarra euskaraz egingo da.

c) Informazio Batzordeak euskaraz egingo dira.

d) Udalbatzaren osoko Bilkuretan aldibereko interpretazioa egingo da ulertzeko gai ez diren zinegotzientzat. Gainontzeko Udal organoetako bileretan beharrezko neurriak hartuko dira ulertzeko gai ez diren zinegotzientzat.

- Langileen arteko zein langileen eta zinegotzien arteko ahozko harremanak, eta eguneroko zereginek dakartzaten ahozko jardunak (lan-bilerak, lan-batzordeak) euskaraz egingo dira posible den guztietan.

- Langileen arteko harremanak lanlekuan. Udalean entzuten den hizkuntza euskara izango da. Garrantzia handikoa da lan-ordutegiaren barruan langileek beraien artean euskaraz hitz egitea, lanlekuan entzuten den hizkuntza, nolabait esateko, Udalaren irudia ere badelako.

- Langileak hautatzeko prozesuetan, elkarrizketak eta gaitasun-probak euskaraz egingo dira. Norbaitek hala eskatuko balu gazteleraz ere egin daitezke.

- Langile etorri berrientzako protokoloa; ahozko azalpenak, euskaraz egingo dira eta udalaren hizkuntza irizpideak idatzita banatuko zaizkio.

3. Idatzizko komunikazioa

3.1. Erakundearen idatzizko kanpo-harremanak.

3.1.1. Herritarrentzako agiriak.

- Inprimakiak. Udalak beti izango ditu herritarren esku euskarazko eta elebitako agiriak (inprimakiak). Hala, inprimaki bakoitzaren bi bertsio izango dira, eta herritarrak agiriren bat eskatzen dionean, udal langileak, herritarraren arabera, euskarazkoa, edo herritarra erdaldun elebakarra baldin bada, elebietakoa emango dio.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Euskara ofiziala den lurraldeetan kokatuta dauden erakunde publikoen inprimakien kasuan, Udalak onartutako irizpidea beteko da. Aipatu erakunderen batetik gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorriz gero, Udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Elebietako inprimakian, euskara nabarmenduko da.

Atal honen eranskina da honakoa: *1. eranskina: Idatzizko nahiz ahozko kanporako komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak.*

- Etxera bidaltzen diren agiriak (gutunak, jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, mezu elektronikoak edo faxak, baldintza pleguak) euskaraz bidaliko zaizkie hala eskatu duten herritarrei, elkarteei eta erakundeei, eta euskara nabarmenduta beste guztiei.

- Udalerrian zabaldu beharreko oharra eta bandoak: Bi hizkuntzetan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanda.

Gainera, testuak marrazki eta piktogramaz lagundurik komunikazioa ziurtatzen badu, euskaraz idatziko dira

- Informazio-taulako oharra elebitan izango dira. Euskara ofiziala den lurraldeetan kokatuta dagoen erakunde publikoren batetik gaztelania hutsezko oharren bat etorriz gero, Udalak euskarazko oharra eskatuko dio dagokion erakundeari.

- Kartelak, eskuorriak, tolesgarriak, katalogoak, gonbidapenak eta antzeko sustapen-materiala euskaraz izango dira arau orokor bezala. Salbuespenak aztertuko dira eta edozein kasutan elebitasun asimetrikoa erabiliko da euskararen alde.

Herritarren osasuna eta segurtasuna oinarri duten jakinarazpenak ele bietan egingo dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez.

Turismoarekin zerikusia dutenak eleanitzak izan daitezke, beti ere euskarari lehentasuna emanez.

3.1.2. Erakundeetarako agiriak.

- Euskara ofiziala den lurraldeetan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara erabiliko da beti, eta horiengandik gutxienez euskaraz jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da.

Hala, aipatu administrazioek Lezoko Udalarri gaztelaniazko idatzirik bidaliz gero, Lezokoko Udalak administrazio horiei eskatuko die euskaraz ere bidal ditzala idatziok.

- Euskara ofiziala den lurraldeetatik kanpoko administrazioetara idatzi elebidunak bidaliko dira, euskarazko mezua lehenetsita.

- EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuaren eta horren menpeko administrazioei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara erabiliko da beti, eta horiengandik gutxienez euskaraz jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Horrenbestez, horietakoren batek gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero, Udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bueltatu egingo da, gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da eta, euskararen aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla jakinaraziko da.

3.1.3. Finantza-erakunde eta hornitzaileekiko agiriak.

- Finantza-erakunde eta hornitzaileekiko harremanetan, euskarazko idatziak erabiltzera joko du Udalak hartzailea Euskara ofiziala den lurraldeetako denean; eta idatzi elebidunak egingo dira aipatu lurraldeetatik kanpokoa denean.

Euskara ofiziala den lurraldeetako finantza-erakunde eta hornitzaileei gutuna bidaliko die Lezoko Udalak euskaraz funtzionatuko duela jakinarazteko eta idatziak (merkataritza dokumentuak: Fakturak, aurrekontuak/eskaintzak, emate-agiriak, gordailuak) euskaraz edo gutxienik elebitan bidaltzeko eskatuko zaie. Elkarlanerako borondatea izanez gero, laguntza eskainiko zaie.

- Hornitzaileei dagokienez, Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (gonbidapena, aurrekontua), euskararen baldintza zehaztuko da.

3.2. Erakundearen idatzizko barne-harremanak (Udal barruko dokumentazioa).

3.2.1. Langileen lan-hizkuntza (sortze-hizkuntza).

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekin, harremanetako hizkuntza beste administrazio batzuekin, eta lan-hizkuntza Lezoko Udalean bertan.

Hori betetze aldera, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten udal langileei bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna aitortzen zaie.

- Barne funtzionamendurako dokumentazioa (txostenak, egitasmoak, plan estrategikoak, urteko kudeaketa planak) euskaraz sortuko dira posible den guztietan.

Irizpide orokor moduan, Lezoko Udaleko administrazio atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek. Euskarazko testu argiak, zuzenak eta egokiak sortzen dituztela egiaztatzeko, Itzulpen Zerbitzura bidali ahal izango dituzte, gainbegiratu eta, beharrezkoa balitz, orrazteko.

- Kanpo harremanetarako denean eta eskatzaileak Udalarekin harremana elebitan izan nahi duela adierazten duen kasuetan, dokumentua sortu duen langileak itzuliko du ondoren idatzi hori gaztelaniara.

3.2.2. Administrazio atal eta lanpostuetako dokumentazioa.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Erakunde barruko idatzizko harreman ofizial zein ez ofizialetan igorritako komunikazioen hizkuntza euskara izango da.

- Langileen kudeaketari dagozkion idatzi estandarizatuak: Izendapenak, lan-kontratuak, nominak, ordutegi-kontrola, egiaztagiriak, telefono-zerrendak eta antzekoak euskaraz sortu eta zabalduko dira.

Horretarako prestatutako eredu egokia emango zaio horretaz arduratzen den langileari.

- Langileari (banaka) dagozkion inprimakiak: Lizentzia baimenak, bidaia- eta otordu-ordainketak eta antzekoak euskaraz egingo dira; jasotzaileak hala eskatuz gero, elebitan. Horretarako prestatutako eredu egokia emango zaio horretaz arduratzen den langileari.

- Udal langileen multzoari zuzendutako komunikazio administratiboak: Barne zirkularrak, e-jakinazpenak (langile berriak, bajak), lan-ordutegi eta egutegiak, oharra eta antzekoak euskaraz sortu eta igorriko dira.

3.2.3. Aginte organoeta(ra)ko dokumentazioa.

- Udalbatzaren Osoko Bilkuraren aktak euskaraz jasoko dira.

Hala ere, norbaitek gazteleraz aurkeztutako idatzia hitzez hitz jasotzen denean, gazteleraz jasoko da; eta Osoko Bilkurako aktan ahozko parte-hartzeak ere hitzez hitz jasotzen direnean, hitz egin den hizkuntzan jasoko dira.

- Osoko Bilkurako dokumentazioa euskaraz sortuko da (deialdiak eta beste).

- Tokiko Gobernu Batzarreko aktak euskaraz jasoko dira.

- Tokiko Gobernu Batzarreko dokumentazioa euskaraz sortuko da (deialdiak eta beste).

- Informazio Batzordeetako aktak euskaraz jasoko dira.

- Akordio proposamenak euskaraz sortuko dira.

- Alkatearen ebazpen eta dekretuak euskaraz sortuko dira.

- Zinegotzi ordezkarien ebazpenak, alkateak emandako eskuordetzearen bitartez erabakitakoak euskaraz sortuko dira.

- Gainontzeko bileretako deialdiak eta aktak, aurkezpen materiala eta txostenak ere euskaraz sortuko dira.

Zinegotziren batek aginte organoetako eta gainontzeko bileretako aktak edo dokumentazioa gazteleraz izan nahi badu idazkaritzak bideratuko du itzulpena.



Lezoko Unibertsitateko Udala

4. Itzulpenak

Udaleko administrazio-atal eta lanpostu orok gai izan behar du euskaraz burutzeko bere ahozko eta idatzizko hizkuntz produkzio arrunt eta tekniko guztia.

Itzulpenak, horrenbestez, eginkizun osagarria izango du bakar-bakarrik: herritarrei nahiz beste administrazio batzuei elebitan bidali beharreko dokumentazioa itzultzea.

Hau da aurreikusi den itzulpen beharrezana:

a) Herritarrei nahiz beste administrazio batzuei elebitan bidali beharreko dokumentazioa itzultzea.

Aipatu itzulpen beharrezanari horrela erantzungo zaio:

- Udal langileak arduratuko dira itzulpena egiteaz agiri labur (orri bat edo bi) edo errepikakorra denean
- Itzulpen baten zuzenketa behar denean, Euskara Sailak lehentasunezko lantzat hartuko du.
- Bi orri baino gehiagoko itzulpen luzeagotan sail bakoitzak kanporatuko ditu, aurretik Euskara Sailak zehaztutako enpresaren batera.

b) Euskara Sailari itzulpena eskatzen zaionean, honako jarraibideak jarraituko dira (Funtzionamendurako ikus 5.3.d. puntua):

- Lana jasotzeko epea zein den adieraztea, betiere gutxieneko epea errespetatuz.
- Itzulgaiari lotutako material, erreferentzia eta informazio iturriak, behar diren guztietan, itzulpena egin behar duenaren esku jartzea.
- Itzulpena jasotakoan, dokumentuaren ardura duen pertsonak gainbegiratzea.
- Euskara Sailak itzulpenaren kalitatearen ardura besterik ez du izango.

5. Langileen prestakuntza orokorra

- Udalak langileentzat antolatzen dituen etengabeko prestakuntza-ikastaroak (barne edo kanpo baliabideen bidez) euskaraz izango dira posible den guztietan. Salbuespenak bereziki aztertuko dira. Prestakuntza eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.

- Kanpotik Udalera datozen prestakuntza eskaintzen artean, hizkuntzaren lehentasunak ezagutzeko bidea jarriko da.

Eta, beste baldintzekin batera, hizkuntzarena ere kontuan hartuko da ikastaroa egin ala ez egin erabakitzerakoan.



6. Tresna eta aplikazio informatikoak

- Euskaraz erabilgarri dagoen software estandarra (programa eta aplikazio orokorrak) – sistema eragilea (Windows), ofimatika (Microsoft Office eta Open Office), euskarri diren erremintak (antibirusa)–, bai eta berariaz sortutako programa edo tresna informatikoak ere –fakturazioa, kontabilitatea, langile-kudeaketa, eta abarretarako aplikazioak– euskaraz instalatuko zaizkie langileei beti, kasuan kasuko euskarazko bertsiorik egonez gero.

- Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan alor bat egongo da honakoa adierazteko: Sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen.

7. Internet eta Intranet sareak

7.1. Erakunde barruko sarea.

- Sareko edukiak euskaraz bidaliko dira.

7.2. Web orriak.

- Lezoko Udaleko web orrialdeek euskarazko zein gaztelerazko atalak izango dituzte (hizkuntza bakoitzak bere kanala; atal bietan eduki berberak), baina defektuz euskarazko bertsioan irekiko dira.

8. Argitalpenak

- Lezoko Udalaren argitalpenak (aldizkariak, liburuak, katalogoak, kultur egitarauak, gidak, DVDak eta zabalkunderako argitalpenak) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira, eta elebitan argitaratuz gero, euskarari emango zaio beti lehentasuna.

Elebitan egingo diren argitalpenen ezaugarriak aldeztu aurretik zehaztuko dira Euskara Zerbitzuarekin.

- Xede-taldearen arabera hizkuntza erabiliko da argitalpenetan.

Hala, herritar multzo euskaldunari (haurrak, gazteak, ikastetxeak, herriko elkarteak, kirol-elkarteak) zuzendutako argitalpenak euskaraz egingo dira.

Argitalpen elebiduna egitea beste aukerarik ez badago, *hankagorazko* ereduari jarraituko zaio, ez parez pareko zutabeen edo leihoen ereduari.

- Udaleko edozein sailetik eskola-umeen gurasoei helarazteko ikastetxeetara Udaletik bidaltzen diren argitalpen, eskuorri, gonbidapen, gutun eta komunikazio oro euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Kanpotik edo beste erakundeetatik datozen argitalpenak gutxienez elebitan iristen direla bermatzeko neurriak hartuko dira, euskarazko edo elebitako bertsioa ere igor dezatela eskatuz dagokionari.

9. Hizkuntza paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)

9.1. Erakunde barruko hizkuntza-paisaia.

- Barne-errotulazio finkoa. Udal egoitzetako barru aldeko inskripzio eta errotulu finkoak –solairuak, gelak, irekita/itxita, tira/bultza, ongi-etorritakoak, norabidezkoak (irteera, sarrera), zerbitzuak (igogailua), identifikaziozkoak (karguak, atalak, etab.) eta antzekoak– euskara hutsean idatziko dira, ondorengo kasu hauetan:

Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean (Adb.: Artxiboa; Aparejadorea).

Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta horien bitartez ulergarriak direnean.

Oso zabaldua daudenean (Adb.: Udaletxea, Musika Eskola, Kultur Etxea).

Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean bakarrik erabiliko dira testu elebidunak, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

- Barne-errotulazio aldakorra. Udal egoitzetako barru aldeko inskripzio eta errotulu aldakorrak –arreta ordutegia, txanden itzarotea, debekua, zerbitzuen tarifak, administratuari zuzendutako oharrak– euskara hutsean egongo dira, ondorengo kasu hauetan:

Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.

Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta horien bitartez ulergarriak direnean.

Oso zabaldua daudenean.

Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean bakarrik erabiliko dira testu elebidunak, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

- Errotulazio txikia (armairu, apal, artxibo nahiz karpitetako etiketak, horma-irudiak, etab.) euskaraz egongo da.

- Ekipamendu orokorraren funtzionamendu mezuak eta errotulazioa (fitxaketa-makina, fotokopiagailua, inprimagailua, faxa, janari-edarien makinak) euskaraz egongo dira.

- Zigiluak eta papeleria osatzen duten dokumentu-ereduak (aurkezpen-txartelak, orri-buruak, gutun-azalak, fax-orriak, poltsak), euskara hutsean egongo dira.

- Ordenagailuko karpeten etiketak eta dokumentuen izenak euskaraz jarriko dira, hala ez badaude.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Udal langileek erabiltzen dituzten agenda, egutegi eta bestelakoak euskaraz izango dira.
- Udal egoitzetako entzunezkoak (musika, irrati-emankizunak eta abar.) euskaraz izango dira.
- Merchandisina eta marketina: Euskarriak (txiskeroak, boligrafoak, sagu-azpikoak, CD-DVDak) euskaraz izango dira, ahal den guztietan.

9.2. Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharrak.

- Lezoko udalerriko kale, bide, auzo, auzune, ibai eta abarren izen-ofizialak euskaraz izango dira.
- Kanpo-errotulazio finkoa. Udal egoitzetako kanpoko aldean –eraikinetako direktorioa (biltegia, bisitariak, zamalanak), norabidezkoak (irteera, sarrera), segurtasun errotuluak (ingurumen-planaren ingurukoak)– eta gainerako udal ondasunetan jarriko diren inskripzioak (bide-seinaleak, ibilgailuak, zaborrontziak) euskaraz egongo dira euskarazko eta gaztelaniazko grafia antzerakoa den kasu guztietan (Adb.: Kamioiak; Auditorium-a).

Piktogramarik ez dagoenean, edota egonda ere behar bezain argia ez denean bakarrik jarriko da testua elebitan beti ere euskara nabarmenduz.

Hizkuntza-paisaiaren elementuren bat gaztelania hutsez edota elebitan balego, ahal izanez gero, euskarazkoarengatik ordezkaturiko da, piktogramak erabilita.

- Errotulazio finkoa osagai higikorretan. Autoen errotulazioa, lan arroparen errotulazioa eta bestelakoak euskaraz egongo dira.
- Kanpo errotulazio aldakorra. Obretako seinale eta oharrak.

Udalaren obrak direnean edo Udalaren enkarguz beste enpresa batzuek egiten dituzten obra eta bestelako lanetan ere, aurrez baldintza pleguetan eta ondoren kontratuan ongi zehaztuko da herritarrei begira jarritako errotulu, kartel edo oharrak euskaraz edota gutxienez euskarari lehentasuna emanez idatzita egon behar dutela.

Udalarenak ez diren obrei dagokienean, obra baimena ematerakoan baldintza moduan eskatuko da ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea. Horren jarraipenaren ardura kontratazioa egin duen Udal sailarena izango da. Udaltzainek hizkuntza irizpidea betetzen ez duen errotulu edo seinalerik ikusiz gero, honako prozedura jarraituko dute: Argazkia atera, enpresari idatzia bidali eta errotulua aldatzeko eskatu, txostena egin eta Euskara zerbitzura bidali, eta jarraian errotulua aldatu den aztertu.

9.3. Udal baimenak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Hirigintza-baimenak. Udalak herritar arruntei edo jardunbide honetako enpresei hirigintzako baimenen bat eman behar dienean, ondorengo baldintzapean emango die: Ageriko hizkuntza erabileran bederen –iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan, alegia– euskara erabil dezatela.

- Merkatal-establezimenduak irekitzeko baimena emateko espedientean, errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio Udalak eskatzaileari.

Merkatalgo-establezimenduetako errotuluak nahiz irudi korporatiboa osatzen duten elementuak euskaraz izateko diru-laguntzak ematen ditu Udalak eta, irekitze-baimenarekin batera horren berri emango zaie merkatalgo-establezimendu berrietako arduradunei.

- Herrian ekitaldiren bat antolatzeko lizentzia eske datorrenari, Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan, euskara erabiliko dela ziurtatzea exijituko dio Udalak, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

- Jaietan barrakak edo postuak jarri ahal izateko derrigorrezkoa izango da prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz ere egotea. Gainera, girotzeko erabiliko den musika euskarazkoa izango da. Udal-baimenarekin batera horren berri emango zaie eta Udalak hizkuntza aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko die hala eskatzen dutenei.

- Baldintzak zehazterakoan Euskara Zerbitzuaren aholkua eta laguntza izango dute dagokien sailek eta antolatzailleek.

- Jarraipena egingo da hizkuntz-baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntz-baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimen-ukapena, isuna) hizkuntz araudia bete ez dutenen aurka.

10. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

- Prentsa-deialdiak eta prentsa-oharrak: Euskaraz idatziko dira.

- Iragarkiak –lan-eskaintzak, diru-laguntzen oinarrien argitalpena edo aldaketa, batzarretara deiak– euskarazko komunikabideetan euskaraz argitaratuko dira eta elebitako edo gaztelaniazko komunikabideetan, euskaraz edo elebitan.

Hala ere, elebitako nahiz gaztelerazko komunikabideetan euskaraz egingo dira hartzailearen ezaugarriak kontuan izanda (18 urtetik beherako haur eta gazteei zuzendutakoak, adibidez).

- Iragarki-taulako publizitatean inoiz ez da gaztelania hutsean izango, nahiz eta beste erakunde baten publizitatea izan, horrek herritarren hizkuntza eskubideak ez errespetatzea dakarrelako. Beste erakunde publikoren batetik gaztelania hutsezko publizitateren bat etorri gero, Udalak euskarazko publizitatea eskatuko dio dagokion erakundeari.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Publizitate-kanpainak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan gauzatuko dira. Elebitan egingo diren kanpainen ezaugarriak alde aurretik zehaztuko dira Euskara Zerbitzuarekin.

11. Diru-laguntzak

Udalak diru-laguntzak emateko baldintzen artean jasoko dute euskararen tratamenduari buruzkoa, beti ere diruz lagundutako egitasmoan hizkuntzaren erabilera eragina duenean. Eta zehazki, ondorengo eskatuko da:

Gizarte zerbitzuetako norbanakoei eta familiei zuzendutakoak ez diren beste diru-laguntzak esleitzerakoan –berdintasuna, kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat–, Udalak kontuan izango du eskatzaileak bai eskaera egiteko garaian bai zerbitzua ematean hizkuntzaren zein erabilera egiten duen eta, zehazkiago, ondorengo eskatuko da:

- Diru-laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: Idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).
- Diru-laguntzaren xede den ekintzan euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezken.
- Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren eskuorriak, kartelak, iragarkiak, oharra eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez elebitan egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.
- Jardueraren hedapen-lana eta jardura bera euskaraz gauzatzen dituzten elkarteak diruz-sarritu dituzte Udalak (elebitasunaren alde egin duten elkarten parean).
- Haur eta gazteentzat zuzendutako jarduerak antolatzeko dirulaguntza eskatzen denean, aipatu jarduerak euskaraz izan beharko dute. Jardura horietan euskara ulertzen ez duen hartzaile bakoitzak bakoitzaren bakoitzaren bakoitzaren bakoitzaren baitan esandakoak uler ditzan.
- Ezarritako hizkuntza-irizpideak (elebitasuna bermatzea) bete ezean, ez da diru-laguntzarik emango.

12. Kontratazio administratiboak

Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatzeko helburua izango dute: Oro har, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea bete araziko da, baina, Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek hala eskatzen badute, hainbat kontratu euskaraz gauzatzeko neurriak ezarriko dira (berezko ezaugarriak hauek izan daitezke: Zerbitzuaren jardueraren gaia; xede taldea; Administrazioaren hizkuntza-araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena).



Lezoko Unibertsitateko Udala

Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztietan jasoko dira: Kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan, bai obra kontratuetan, herri-lanen emakidetan, zerbitzu-kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan. Halaber, baldintza agiri guztietan; karatulan, baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan. Edozein kontratazio egin aurretik eta ondoren, ziurtatu egin beharko da delako enpresa edo norbanakoa gai dela eman behar duen zerbitzua euskaraz emateko.



Lezoko Unibertsitateko Udala


A) ERANSKINA: Idatzizko nahiz ahozko kanporako komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak

Ahozko nahiz idatzizko testuetan, honela emango diogu euskarazko mezuari lehentasuna:


TESTU IDATZIAK

a) Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo-eta lodiagoa erabiliz, beti ere gaztelarazkoa irakurtzeko modukoa izan dadin bermatuz.


b) Euskaraz idatzitakoa izango da orriaren aurreko aldea eta gaztelaniazkoa atzeko aldea. Zigilua eta sinadura ebi aldeetan jarriko dira.



c) Euskaraz idatzitako testua eta gaztelaniazkoa orrialde berean jarri behar izanez gero, euskarazkoa goian eta erdarazkoa azpian eta txikiago idatziko da, beti ere gaztelarazkoa irakurtzeko modukoa izan dadin bermatuz. Data eta sinadura bakarra jarri euskarazko testuaren bukaeran.



d) Bi testuak orri berean eta zutabetan idatzi behar badira, jarri beti euskarazkoa ezkerretara eta gaztelaniazkoa eskuinean eta txikiagoa idatziko da.




e) Liburuxka moduan, bi testuak orri banatan idatzi behar badira, utzi eskuineko orria euskarazko testuarentzat.



Lezoko Unibertsitateko Udala

ezkerreko orrialdea
gaztelaniaz



eskuineko orrialdea
euskaraz

f) Beste modu batzuk:

- Osagai batzuk euskara hutsean emanaz: kopuruak, toki-izenak, datak...
- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanaz.
- ...

AHOZKO AZALPENAK

a) Lehenengo euskaraz emanaz

b) Azalpena osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz eginez.

c) Azalpena osorik euskaraz eta idatzizko euskarri informatikoan informazioa gaztelera
emanaz.